



## ◦ DEABRUAREN ABOKATUA ◦

*“Futbolean, beste hainbat kontutan bezala, Xenpelarren ‘Ia guriak egin du’ oso aproposa da”*

Xabier Aierdi | komentarista globala

Euskadiko soziologoaren presidentea izan zen hainbat urtez, orain Immigrazioaren Euskal Behatokia zuzentzen du. Gero eta ikasle belaunaldi gehiagok bere baitan gordetzen duen unibertsitateko irakasle on eta jatorra.

FERMIN ETXEGOIEN  
Argazkia: Iñigo Azkona

### Oraindik existitzen al da soziologia karrera?

Bai, zorionez, gaixorik dabilen arren. Besteak beste, elkarrizketa hau egitea ahalbidetu dizu.

### 80ko hamarkadan modan egon zineten, sorbalda zabaleko jakak bezala.

Eta oraingo prakak bezala pixka bat laburtuta gabiltza gaur egun, gerria estali ezinean...

### Zenbat etorkin gehiago behar ditugu benetan konproba dezagun arrazistak ez garela?

Horren harira, txiste austriar bat gogoratzen dut: “Zer da etorkin bat? Bitxikeria! Zer dira hamar etorkin? Aspergarriak, beti jatorriaz hitz egiten! Zer dira ehun etorkin? Gertatzen den guztiaren errudunak”.

### Zenbaki kontua, beraz...

Tolerantziak zenbakiekin zerikusirik ez daukala uste dut. Arrazista denari berdin dio batek edo milak... Gainontzekoak egokitu egingo gara, gaur arte egin dugun moduan...

### Zeberion jaio izanak zertan bultzatu zintuen soziologiara?

Neure buruari sarri galdetu diot, baina ez dut erantzunik aurkitu. Nolanahi ere, Zeberion kalitate oneko soziologo kantitate esanguratsua dago.

### Athletic atzerritarrekin osatzearen alde zaude. Etorkinen Behatokiko zuzendaria izateak behartzen zaituelako?

Ez, zoritxarrez! Futbolean, beste hainbat kontutan bezala, Xenpelarren *Ia guriak egin du* oso aproposa

da, ez dago lehen mailako ekipo euskaldunik mantentzeko demografiarik.

### Alde, beraz...

Momentuko mirari engainagarrietatik at, etorkizunak atzerritarak eskatzen ditu. Zorte ona izan dezala Errealak lehen mailara igotzen eta Athleticek bigarrenera ez jaisten. Gure herriaren egoeraren metafora bat dira talde biak.

### Soziologo gisa posible al da, zer esango dizut... Euskal Herriko independentziaren aurka egotea?

Bai! Eta kazetari gisa ere bai! Beste kontu bat da soziologikoki independentziarako baldintza sozial eta politikorik dagoen. Gaurko zenbakiekin ezinezkoa da! Etorkizunean? Batek daki, baina hobe futurologoei galdetzen badiezu.

### Borroka armatuaren alde?

Bai, zergatik ez? Eta kontra ere bai, ni neu behintzat guztiz kontra nago! Baina zientzialari modura, oso soziologo txarra da borroka armatuaren bidez existitzen ez diren baldintza sozial eta politikoak sor litezkeela uste duena.

### Benetan ahoskatzen duzu soziologia, eta ez soziologia?

Nik -jia ahoskatzen dut, hainbat hizkuntza inkorporaziotarako berandu egin zait eta. Egia esan, gure garaikook arlo honetan makinatxo bat ahalegin egindakoak gara. Tragedia handia da hizkuntzalaria izan behar izatea ere. Gure aitak esaten zuen bezala: “Euskerarik onena? Berbaiten dana!”. ■